

Telematikoki nola aurkeztu

Deklarazioa egin eta gero, igorpena Internet bidez egingo da, konkretuki Ogasunatariatik.

Gipuzkoatarian sartzeko bi egoera desberdinduko ditugu:

1. **PERTSONA FÍSICO BATEN PASAHITZA EDO SINADURA** elektronikoa erabiliz sartzea, orduan, DERRIGORREZKOA izango da pertsona hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga ordezkarien ala Legezko ordezkarien erroldan inskribatua egotea. Zerga ordezkaritzan izena emateko honako urratsak eman behar dira:

- Zerga ordezkarien erroldan alta emango da. Internet bidez egin behar da. Eskariarekin batera, eskaneatuta, honako agiriak igorri beharko dira: estatutuak eta ordezkari izaera egiaztatzen duen jatorrizko agiria. Bi agiri hauek Irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan inskribatuta egongo dira. Inskribatutako karguak indarrean ez badaude, baina pertsona berak betetzen badituzte eginkizun horiek, aurrekoaz gain, "[Arduraz egindako aitorpena](#)" deritzon dokumentua bidali beharko dute.

Karguan dauden pertsonak ez badira inskribatu elkartearen erregistroan izapide hori bete beharko dute. Ordezkaritza erroldan alta emateko eskatuko zaie karguen zerrenda berria aurkeztuta egotea elkartearen erregistroan. Horretarako elkartearen erregistroaren sarrera erregistroa kontuan hartuko da. Beraz, Zerga ordezkarien erroldarako eskaria egiterakoan, gehienez, elkartearen erregistroko sarrera datatik hiru hilabete igaro ahal izango dira.

- Agiriak onartu direla esanez Ogasunetik mezu elektronikoa jasotzen denean, izapideak modu desberdinetara egingo dira. Ohikoena, [Ogasun eta Finantzarako bulegoetan](#), lehendakariak sinatutako 001 inprimakia beteta aurkeztea. Beste aukerak hemen topatuko dituzu : [3. Ordezkatuaren borondatea balioztatzea](#)

2. **ENTITATE GAKOA** erabiltzen denean, ordezkaritza erroldarako ez da aparteko izapiderik egin beharko. Eman beharreko urratsak hiek dira:

- Elkartearen lehendakariak, hau da, ordezkari legalak, [gako operatibo](#) ala [onartutako ziurtagiri digital](#) bat izan beharko du.
- Ordezkarari legalen erroldan alta eman beharko du. Gipuzkoataritik telematikoki alta eskaria egiten da. Eskariarekin batera eskaneatuta honako agiriak igorri beharko dira: estatutuak eta karguen izendapenak. Bi agiri hauek Irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan inskribatuta egon beharko dira. Inskribatutako karguak indarrean ez badaude, baina pertsona berak betetzen badituzte eginkizun horiek, aurrekoaz gain, "[Arduraz egindako aitorpena](#)" deritzon dokumentua bidali beharko dute.

Karguan dauden pertsonak ez badira inskribatu elkartearen erregistroan izapide hori bete beharko dute. Ordezkaritza erroldan alta emateko eskatuko zaie karguen zerrenda berria aurkeztuta egotea elkartearen erregistroan. Horretarako elkartearen erregistroaren sarrera erregistroa kontuan hartuko da. Beraz, Zerga ordezkarien erroldarako eskaria egiterakoan, gehienez, elkartearen erregistroko sarrera datatik hiru hilabete igaro ahal izango dira.

- Ordezkarari legalen erroldan inskribatuta daudela esanez Ogasunetik mezu elektroniko bat jasoko dute, eta honenbestez, entitatearen gako operatiboa jasotzeko, Ogasun eta Finantzetako bulego batetik pasa beharko dira. Horretarako nahikoa izango dute bere NA erakutsi eta elkartearen IFZ aipatzea.

Elkartearen ordezkari legalak joaterik ez badu, etortzen denak horretarako emandako notario-baimena ekarri beharko du.

Informazio gehiago:

- [Zerga ordezkarien errolda](#)
- [Legezko ordezkarien errolda](#)